

**EUSKO JAURLARITZAKO GIZARTE POLITIKETAKO SAILARI ATXIKITA DAGOEN  
ALOKABIDE, S.A. SOZIEKATE PUBLIKORAKO GIZARTE LANGILEEN LAN POLTSAREN  
ERAKETA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK.**

---

**LEHENENGO OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA**

Honako hau da oinarri hauen xedea: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikita dagoen ALOKABIDE S.A., sozietate publikorako gizarte langileen lan-poltsa eratzeko prozedura arautzea. Pertsona horiek aldi baterako zerbitzuak eman beharko dituzte sozietateko edozein egoitzatan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan.

Lan-poltsa honekin bete nahi diren beharrianak lanpostuari dagozkionak dira:

**LANPOSTUAREN EGITEKOA / MISIÓN DEL PUESTO:**

Alokabidek kudeatzen dituen etxebizitza parkeetako errentamenduari loturiko hezkuntza eta gizarte laguntzako eginkizunak betetzea.

**LANPOSTUAREN OINARRIZKO FUNTZIOAK / FUNCIONES BÁSICAS DEL PUESTO**

1. Gizarteari buruzko balorazioak egitea prebentziorako eta esku hartzeko.
2. Gizarte txostenak egitea.
3. Errentamenduari loturiko eta gizartean esku hartzeari dagozkion izapideak egitea (konpainia, orientazioa, hezkuntza-lanak, gizarte-bazterketa egoeren prebentzioa, etab.).
4. Etxebizitzetan sorturiko elkarbizitza-arazoen kasuetan esku hartzea.
5. Beste erakunde batzuekiko eta Gizarte Zerbitzu Erakundeekiko harremanak (udal-, foru- eta gobernuko erakundeekikoak) egitea eta koordinatzea, gizartean ikus daitezkeen kasu zehatzei buruzko informazioaren baterako kudeaketa eta baliabideetara bideratzea helburu.
6. Arduradunari eta Arloko beste langileei laguntza teknikoa eta aholkuak ematea.
7. Gizartearekin lotutako beste entitate eta erakunde batzuekiko lankidetzaproiektuak bultzatu eta kudeatzea.
8. Dagokion jarduera arloaren barruan, prozesuetako lantaldeetan parte hartzea.
9. Kontratak bilatzeko, koordinatzeko eta horien lanaren jarraipena egiteko izapideetan laguntzea. Emandako zerbitzuengatik fakturak kudeatzea.

10. Oro har, ezarritako helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren lan guztiak, izaera eta prestakuntza berekoak egitea.

Deialdi honetan Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko 2007ko apirilaren 12an 7/2007 Legearen 52., 53., 54., 55. eta 59. artikuluetan ezarritakoa aplikatzen da.

Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta oinarriak eskuragarri daude ALOKABIDEn web orrian (<http://www.alokabide.euskadi.net/bolsa-empleo/>) eta SELECCIÓN y FORMACIÓN kanpoko aholkularitza-enpresaren web orrian (<https://www.seleccionformacion.com/ofertas/>).

### **BIGARREN OINARRIA.- HONAKO HAUEK IZANGO DIRA HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK**

#### **A) Baldintza orokorrak**

- a) Herritartasuna: Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.
- b) Adina: Hamasei urte beteta izatea eta oraindik ez izatea nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina.
- c) Titulazioa: Gizarte Langintzako edo Gizarte Hezkuntzako Diplomatura, horren baliokidea den edo goragoko titulu bat edukitzea.
- d) Funtzio-gaitasuna: Dagozkien eginkizunak betetzearekin bateraezina den gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik ez izatea.
- e) Gaitzea: Autonomia-erkidegoetako administrazio publikoetako edo organo konstituzionaletako edo estatutu organoetako edozein zerbitzutatik baztertu ez izana diziplina-espeditate bitartez, ezta ebazpen judizialaren bitartez, enplegu edo kargu publikoak betetzeko erabateko gaitasungabetzearen edo gaitasungabetze bereziaren egoeran egotea ere. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaituta ez egotea edo antzeko egoeraren batean ez egotea; halaber, enplegu publikoa lortzea eragozten duen diziplina-zehapenaren edo antzekoren baten eraginpean egon ez izana bere Estatuan, baldintza beretan.

Edozein modutan ere, baldintza orokorrak baztertzailak dira.

## B) Baldintza Espezifikoak

### Baztertzailerak:

- f) B1 motako gidabaimena edukitzea.
- g) EAEko hizkuntza ofizial biak jakitea, bai ahoz, bai idatziz; euskara maila: B2.
- h) Gutxienez bi urteko eskarmentua antzeko lanpostuetan.

### Ez baztertzailerak:

- i) Bitartekotzaren ezagutza.
- j) Gizarte laguntzaren ezagutza.
- k) Microsoft Office maila aurreratuan ezagutzea.
- l) Bezeroarekiko harremanaren kudeaketarako (CRM) tresnak ezagutzea, besteak beste, enpresetako baliabideak planifikatzeko (ERP) informatika-aplikazioen ezagutza.
- m) Gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunaren arloko prestakuntza.
- n) Beste hizkuntza batzuk jakitea.

## **HIRUGARREN OINARRIA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA**

Hautagaiek euren *curriculum vitae* erregistratu eta bidali beharko dute **S/R 2406-erreferentzia – GIZARTE LANGILEEN LAN POLTSA** eskaintzari erantzunez, **SELECCIÓN Y FORMACIÓN**-en web orriaren bitartez (<https://www.seleccionformacion.com/ofertas/>) **BAINO EZ**.

Horrez gain, posta elektronikoaren bitartez ([alokabide@seleccionformacion.com](mailto:alokabide@seleccionformacion.com)) bidali beharko dute honako dokumentazio hau:

- **eskaera:** bertan adieraziko da **A) bigarren atal osoa** betetzen dela (**horren eredu bat SELECCIÓN Y FORMACIÓN**-en <https://www.seleccionformacion.com/ofertas/> **web-orrian dago**).
- **adierazpena:** bertan adieraziko da **bigarren B) ataleko f), g), h) eta i) letretan** eskatzen dena betetzen dela (**horren eredu bat SELECCIÓN Y FORMACIÓN**-en <https://www.seleccionformacion.com/ofertas/> **web-orrian dago**).
- *Curriculum Vitae*.
- *NANaren edo dokumentu baliokidearen kopia*.

Eskabideak aurkezteko epea deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasi eta egutegiko 15 egunekoa izango da, hots, **2014ko abenduaren 30ean** amaituko da.

### **LAUGARREN OINARRIA.- ESKABIDEAK EGIAZTATZEA**

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, zuzen daitezkeen akatsak konpontzeko izapideari ekingo zaio, eta horretarako epe bat emango da.

Baldintzak ez betetzeagatik behin betiko baztertutakoan zerrenda eta baztertzeko arrazoi zehatza eskabideetan adierazitako posta elektronikoko helbidearen bitartez jakinaraziko zaie interesdunei.

Onartutako hautagaien zerrenda, ALOKABIDEn eta SELECCIÓN Y FORMACIÓN-en web orrietan argitaratuko da.

### **BOSGARREN OINARRIA.- HAUTATZEKO PROZEDURA**

Hautatzeko prozedurak fase hauek izango ditu:

#### **0. FASEA**

Honako honetan oinarrituko da:

- a) Curriculumeko merezimenduen balorazioa: esperientzia, prestakuntza, ikastaroak, tituluak, hizkuntzak eta informatika.

0. fasean aipatutako merituen egiaztagiria, lan-bizitzaren agiria barne, aurkezteko epea probak egiteko eguna heldu aurretik amaituko da eta posta elektronikoaren bitartez ([alokabide@seleccionformacion.com](mailto:alokabide@seleccionformacion.com)) bidali beharko da.

Egiaztagiria eman zireneko datak, betiere, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehenagokoa izan behar du.

#### **1. FASEA**

Honako hauetan oinarrituko da:

- b) Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen ariketa bat egitea, ezagutza espezifikoa ebaluatzeko. Horretarako, lanpostuari loturiko gaitasun teknikoaren ezagutzaren proba praktikoa bat egingo da. Proba horrek 1. Eranskinean dagoen gai-zerrenda izango du oinarri.
- c) Titulu ofizialik aurkeztu ez dutenek euskara-proba bat egin beharko dute, eskatutako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

## 2. FASEA

Honako hauetan oinarrituko da:

- d) Merezimenduen balorazioa: esperientzia, prestakuntza, ikastaroak, tituluak, gaitasunak, hizkuntzak eta informatika.
- e) Proba psikoteknikoak: gaitasun- eta pertsonalitate-test bat edo gehiago egingo da.

## 3. FASEA

Aurrez aurreko elkarrizketa: curriculumari buruzko elkarrizketa bat egingo da, eta horren bidez, lanpostuari lotutako gaitasun teknikoak, orokorrak, baita zeharkako eta jarrerazko gaitasunak ere ebaluatuko dira.

Proba hori kanpoko aholkularitza-enpresak egingo du (SELECCIÓN Y FORMACIÓN).

1., 2. eta 3. faseei dagozkien atalak epaimahaiak ezarritako irizpideen arabera ebaluatuko dira. Irizpide horiek **2. Eranskinean** ematen dira.

Probak egiteko egunak, lekua eta ordua ALOKABIDEn eta SELECCIÓN y FORMACIÓN-en web orrietan argitaratuko dira. b), c), eta e) atalean aipatutako probak egun bakar batean egingo dira.

SELECCIÓN y FORMACIÓN enpresak txosten bat egingo du lan-poltsa osatuko duten hautagai finalisten zerrendarekin.

Hautagai bakoitzaren NANaren azken 4 zenbakiak eta letra jasotzen dituen zerrenda hori ALOKABIDEn zein SELECCIÓN Y FORMACIÓN enpresaren web orrietan argitaratuko da.

SELECCIÓN Y FORMACIÓN hautagai finalistei buruzko txosten oso bat egingo du.

### **SEIGARREN OINARRIA.- EPAIMAHAIA OSATZEA**

Fase bakoitzaren emaitzak balioztatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, honako kide hauekin:

- Epaimahaiburua: Igor Etxabe (Arreta eta Kanpo Komunikazio Arloko zuzendaria)
- Mahaikidea: Ana Isabel García (Gizarte Laguntzako arduraduna)
- Mahaikidea: Itziar Arieta-Araunabeña (Arreta arloko Bizkaiko koordinatzailea)
- Idazkaria: Rosa Labrador (Pertsonen teknikaria)

Ezinezkoa bada epaimahaiko kideren bat bertaratzea, sozietatearen zuzendari nagusiak hura ordeztuko duen pertsona bat izendatuko du. Edonola ere, epaimahaiak gutxienez hiru kidez osatuta egon beharko du.

### **ZAZPIGARREN OINARRIA.- LAN POLTSAREN ERAKETA**

Hautaprobak amaitutakoan, aukeratutako pertsonak lan-poltsa osatuko dute, ALOKABIDE S.A. sozietatean sor daitezkeen gizarte langilearen profileko lanpostu hutsak aldi baterako betetzeko.

Lan-poltsako hautagaiei puntuazio-ordenari jarraituta deituko zaie.

Lan-poltsaren iraunaldi-epea 5 urtekoa izango da.

### **ZORTZIGARREN OINARRIA.- DATUAK BABESTEIA**

Sozietate publiko honek, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betez, hautagaiei jakinaraziko die hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondorioz ALOKABIDEra bidaltzen dituzten datu pertsonalak ALOKABIDE S.A.ren titulartasuneko fitxategi informatizatu batean ("Lan-poltsa" izenekoan eta aldezturik Datuak Babesteko Espainiako Agentzian inskribatuan) jasoko direla, eta hautaketa-prozesuan parte hartzea kudeatzeko erabiliko direla deitutako plaza betetzeko eta, hala badagokio, etorkizuneko aldi baterako kontratazioetarako hautagaien lan-poltsa bat egiteko.

DPBLOren (LOPD) 9. artikulua eta DPBLO Garatzeko Araudiaren (RLOPD) VIII. Tituluak ezarritakoa betez, ALOKABIDEk bere fitxategiak, lokala eta datuen tratamendurako sistemak babesteko neurri teknikoak zein antolamendu-neurriak hartu ditu, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta haien aldatzea, galtzea edo baimenik gabe tratatu eta baliatzea saihesteko moduan.

Hautagai direnek, datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoak aitortzen dituen eskubideak, hau da, datuok eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak gauzatu ditzakete. Horretarako, eskaera idatzi eta sinatu bat ARCO erreferentzia aipaturik, hautagaiaren NANaren kopia batekin batera bidali behar dute ALOKABIDE S.A. enpresara, posta arruntez (Gamarrako Atea 1-A, 2. solairua – 01013 Gasteiz –Araba–), edo bestela, posta elektronikoz bidez, [lopd-alokabide@alokabide.com](mailto:lopd-alokabide@alokabide.com) helbidera.

## 1. ERANSKINA – GIZARTE LANGILEEN LAN POLTSA OSATZEKO PROBA PRAKTIKOAREN GAI ZERRENDA

---

1. **gaia.-** Gizarte lana: kontzeptuak, printzipioak, helburuak eta funtzioak. Gizarte lanaren oinarri etikoak. Sekretu profesionala.
2. **gaia** – Gizarte langileen Kode Deontologikoa.
3. **gaia** – Oinarrizko dokumentazioa gizarte lanean.
4. **gaia** – Elkarrizketa gizarte lanean.
5. **gaia** – Gizarte lanean esku hartzeko eredu nagusiak, erreferentziazko paradigmak arabera: eredu sistemikoa eta eredu psikosoziala. Ezaugarriak. Desberdintasunak. Bateragarri egiteko aukerak.
6. **gaia** – Gizarte langileen esku hartzea etxebizitzaren arloan.
7. **gaia** – Gizarte-bazterketa/gizarteratze prozesuak Bazterketa eta pobrezia, marjinazioa, desparekotasuna bezalako kontzeptuen arteko harremana. Gizarte-bazterketa/gizarteratze prozesuak. Eragina duten faktoreak.
8. **gaia** – Gizarte esku hartzea gizarte egoera ahuleko eta/edo bereziki zaurkorrak diren taldeekin.
9. **gaia** – Etxebizitzaren arloko gizarte zerbitzuetako programen ebaluazioa.

## 2. ERANSKINA – GIZARTE LANGILEEN LAN POLTSA OSATZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

### 1.- HELBURUA

Agiri honen helburua GIZARTE LANGILEA lanpostuaren hautapen prozesuaren 1. FASEA, 2. FASEA eta 3. FASEA faseak puntuatzeko irizpideak ezartzea da.

Irizpide horiek orokorrak dira eta dagokion epaimahaiak aldatu ahal ditu, faktore bakoitzean ezarri diren mugen barruan.

### 2.- FASEAK ETA FASEEN ARABERAKO PUNTUAZIOAK

Hautagaien balorazioa bi fasetan egingo da

- 1.- **1. fasea:** gaitasun probak
  - Gehienezko puntuazioa 1. fasean: **35 puntu**
- 2.- **2. fasea:** merezimenduen balorazioa.
  - Gehienezko puntuazioa 2. fasean: **40 puntu**
- 3.- **3. fasea:** curriculumaren arabera elkarrizketa
  - Gehienezko puntuazioa 3. fasean: **25 puntu**

### 3.- BALORATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

#### 1. FASEA:

- Fase horretan lanpostuaren ezagutza teknikoa baloratuko da.
- 1. fasearen puntuazioa, guztira, **35 puntukoa** izango da.
- **Ezagutza probak** kasu praktikoa bat edo batzuk barne hartuko ditu.

Proba horretan, **gehienezko puntuazioa 35 puntukoa** izango da.

**Ezagutza zehatzen** atal horretan gai izateko **% 60ko** puntuazioa lortzea ezinbestekoa da, hau da, gutxienez **21 puntu** lortu behar dira.

- **1. fasea guztizkoaren** (1. fasea, 2. fasea eta 3. fasea) **% 35** da.

#### 2. FASEA

- 2. fasean merezimenduen balorazioa funtzioak gauzatzeko gaitasunen proba batekin osatuko da.
- Fase horretan gehienezko puntuazioa **40 puntutakoa** izango da



## 2. ERANSKINA – GIZARTE LANGILEEN LAN POLTSA OSATZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

2. FASEA						
MEREZIMENDUEN BALORAZIOA						
12,5%	6,25%	37,5%	9,375%	9,375%	12,5%	12,5%
0 – 5 puntu	0 – 2,5 puntu	0 – 15 puntu	0 – 3,75 puntu	0 – 3,75 puntu	0 – 5 puntu	0 – 5 puntu
Bat datorren esp. profesionala	Esp. Alokabiden	Lotura duen prestakuntza	Euskara	Hizkuntzak	Psikoteknikoa 1	Psikoteknikoa 2

- Fase horretan baloratuko diren faktoreak hauek dira:
  - **Psikoteknikoak:** test moduko bi proba egingo dira eta puntuazioa **gehienez 10 puntukoa** izango da (test bakoitzarentzat 5 puntu).
  - **Bat datorren esperientzia profesionala:**

Eskatzen denaren antza duten beste lanpostuetan izandako esperientzia profesionala baloratuko da:

Ondorengo arloetako esperientzia baloratuko da:

- Gizarte esku-hartzea
- Gizarte bitartekaritza
- Gizarte hezkuntza
- Bete beharreko lanpostuaren antza duten beste lanpostu batzuk

Azken hori baloratzeari dagokionez, ez da Alokabiden izandako esperientzia kontuan hartuko beste atal batean aintzat hartuko baita.

Faktore hori **gehienez ere 5 punturekin** baloratuko da.

- 2 urte baino gehiago, 3 urtera arte: puntu 1
- 3 urte baino gehiago, 5 urtera arte: 2 puntu
- 5 urte baino gehiago, 7 urtera arte: 3 puntu

## 2. ERANSKINA – GIZARTE LANGILEEN LAN POLTSA OSATZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

- 7 urte baino gehiago, 9 urtera arte: 4 puntu
  - 9 urte baino gehiago: 5 puntu
- **Alokabiden izandako esperientzia profesionala.** Sozietateko edozein lanpostutan lortutako esperientzia profesionala baloratuko da.

Faktore hori **gehienez ere 2,5 punturekin** baloratuko da.

- 6 hilabetera arte: **0,50 puntu**
  - 6 hilabete baino gehiago, 12 hilabetera arte: **puntu 1**
  - 12 hilabete baino gehiago, 18 hilabetera arte: **1,5 puntu**
  - 18 hilabete baino gehiago, 24 hilabetera arte: **2 puntu**
  - 24 hilabete baino gehiago: **2,5 puntu**
- **Lotura duen prestakuntza**

Lanpostuaren gaitasun teknikoak garatzea xede duen prestakuntza zehatza baloratzen dugu.

Alderdi hori **gehienez ere 15 punturekin** baloratuko da.

- **Baztertzailleak ez diren eta 250 ordu baino gehiagokoak diren ikastaro eta titulazioak** baloratuko dira, bitartekaritza, esku-hartze, gizarte hezkuntza edo gizonen eta emakumeen arlokoak eta/edo bete beharreko lanpostuarekin zerikusia dutenak. Alderdi hori honela puntuatuko da: **3,75 puntu** ikastaro bakoitzeko.
- **100 orduko ikastaro espezializatuak** baloratuko dira, batez ere, arlo honetakoak: bitartekaritza, esku-hartze, gizarte hezkuntza, gizonen eta emakumeen berdintasuna eta/edo bete beharreko lanpostuari lotutakoak **edo beste arlo batzuetako** (aipatutakoak ez direnak) **250 ordu baino gehiagoko ikastaro espezializatuak**, zehazki, **2,25 puntu** emango da ikastaro bakoitzeko.
- **50 orduko (edo gehiago) ikastaro espezializatuak** baloratuko dira, batez ere, arlo honetakoak: bitartekaritza, esku-hartze, gizarte hezkuntza, gizonen eta emakumeen berdintasuna eta/edo bete beharreko lanpostuari lotutakoak **edo beste arlo batzuetako** (aipatutakoak ez direnak) **100 ordu baino**

## 2. ERANSKINA – GIZARTE LANGILEEN LAN POLTSA OSATZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

**gehiagoko ikastaro espezializatuak**, zehazki, **1,5 puntu** emango da ikastaro bakoitzeko.

- **20 orduko ikastaro espezializatuak** baloratuko dira, batez ere, arlo honetakoak: bitartekaritza, esku-hartze, gizarte hezkuntza, gizonen eta emakumeen berdintasuna eta/edo bete beharreko lanpostuari lotutakoak **edo beste arlo batzuetako** (aipatutakoak ez direnak) **50 ordu baino gehiagoko ikastaro espezializatuak**, zehazki, **0,75 puntu** emango da ikastaro bakoitzeko.
- Lanpostuari dagozkion gaitasun tekniko zehatzak garatzeko beste ikastaro batzuk (10 ordu baino gehiago irauten dutenak): **0,375 puntu**.

Epaimahaiak modu zehatzagoan zehaztu ahalko du aurreko irizpideetan islatu ez den beste edozein ikastaro edo master interesgarri eta aurreko ataletan ezarritakoarekin bat eginez baloratuko da.

### ○ Euskara

Atal horretan, lanposturako beharrezkoa dena gainditzen duen euskarako prestakuntza baloratu da. Horretarako, titulu ofiziala aurkeztu beharko da.

Faktore hori **gehienez ere 3,75 punturekin** baloratuko da.

- C1, 3.HE edo antzerakoa: **1,875 puntu**
- C2, 4.HE edo antzerakoa: **3,75 puntu**

### ○ Hizkuntzak

Atzerriko edozein hizkuntzako prestakuntza baloratuko dugu. Horretarako, titulu ofiziala aurkeztea beharrezkoa izango da.

Faktore hori **gehienez ere 3,75 punturekin** baloratuko da.

- Oinarrizko – tarteko maila: B1 Europako markoa: **0,75 puntu**
- Tarteko maila – maila altua: B2 Europako markoa: **1,875 puntu**
- Maila altua – aurreratua: C1 Europako markoa: **3,75 puntu**

➤ 2. fasea guztizkoaren (1. fasea, 2. fasea eta 3. fasea) **% 40** da.

## 2. ERANSKINA – GIZARTE LANGILEEN LAN POLTSA OSATZEKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK

### 3. FASEA

- 3. fasea prozesu hau burutzeko sortutako epaimahaiak egingo duen elkarrizketa pertsona batekin osatuko da.

- **Elkarrizketa pertsonala**

Alderdi hori **gehienez ere 25 punturekin** baloratuko da

Epaimahaiak egingo duen elkarrizketan ondorengo gaitasunak baloratuko dira:

Gaitasunak									
2,5	3	2,5	2,5	2,5	3,5	3,5	3,5	1,5	25
Itxaropenak	Iniziatiba	Hobekuntza	Bezeroarekiko orientazioa	Lidergoa	Plangintza, antolakuntza	Harremanak, lantaldeak, pertsonen arteko trebetasunak	Alderdi teknikoak	Erakundera egokitzea	Guztira
	Autonomia, erabakitze ahalmena	Hobetzeko proposamenak							

**Elkarrizketa pertsonalaren atal** horretan gai izateko **% 60ko** puntuazioa lortzea ezinbestekoa da, hau da, gutxienez **15 puntu** lortu behar dira.

- 3. fasea guztizkoaren (1. fasea, 2. fasea eta 3. fasea) **% 25** da.